

Amaior Guindeo

ALDERDI EGUNA 2023

El único discurso válido será el pronunciado por el orador en el acto.

Balioa izango duen diskurtso bakarra izango da hizlariak bertan eskainiko duena.

Egun on alderdikideok, alderdizaleok, aberritarrok, egun on!! Hau poza gaur, batzen gaituenegun honetan, alderdi egunean, elkar ikustea!

Aitortu beharra daukat, izugarritzko ohorea da niretzat gaur, alderdikide eta lagunez inguratuta nagoelarik, EGIren ahotsa izatea, eta ohore handiagoa da, posible izatekotan, gazte eta iada hain gazte ez diren nafarron ahotsa gaur Forondara ekartzea.

Eta beste gauza bat aitortu behar dizuet ere. 18 urte nituelarik alderdikidetu nintzen, orain dela 7, eta hau da nire lehenengo Alderdi Eguna. Lehenengoa, bai, baina izan seguro ez dela azkenekoa izango!

Y en este mi primer Alderdi Eguna, permitidme que barra un poco hacia casa, y permitidme que recordemos y homenajemos a aquellos que en Nafarroa sembraron, cuidaron y mantuvieron viva la llama del nacionalismo vasco, eta hortxe ditugu Manuel Irujo, Fortunato Aguirre, José Antonio Urbiola, Bixente Arozena, Jose Ángel Aguirrebengoa, Manu Ayerdi... y otros tantos y tantas alderdikides comprometidas que han conseguido que hoy seamos lo que somos en Navarra: un partido histórico y con historia pero, sobre todo, con futuro.

Baina katea ez da hor eten, etorkizuna badago bai, baina oraina ere badugu, eta ze nolako ordezkariekin. Unai, cómo diriges el Parlamento, ¡increíble! Cómo se nota la mano jeltzale, dialogante, conciliadora... Y menudo el equipo que te acompaña: María, Mikel, Blanca, Javi, Idoia, Andoni, Kristian, Iñigo, Miren, Pili... Equipo no, ¡equipazo! Eskerrak zuei ere, zuen pausoak jarraitzeko prest dago Nafarroako gazteria.

Baina ez Nafarroako gazteria bakarrik, zazpi lurraldeetako gazteria prest dago, EGIkide guztiak prest gaude alderdiaren etorkizuna izateko!

Erronka ederra dugu aurrean, ez garelako alderdiaren etorkizuna bakarrik. Euskadiren, aberriaren, eta euskaldunen etorkizuna gara ere bai, eta horri gogotsu eta ilusioz ekingo diogu, baina baita erantzukizunez ere bai.

EGIkideok osatu dugun talde indartsu eta langile honekin ziur nago aurrera eramango ditugula gazteriak dituen premiazko erronkak, besteak beste; baldintza duinak bermatzen dituen lan-merkatu sartzeko zailtasunak, eta honek dakarren gazteen arteko langabezi tasa altua, etxebizitza lortzeko aukera mugatuak, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, kalitatezko lanpostuak, gure bizitza gure auzo, herri edo hirietan aurrera eramateko dugun zailtasuna, digitalizazioa, krisi klimatikoa...

Gauza asko ditugu aurretik, lan handia bai, eta gainera, hainbeste polarizatu den gizarte honekin, ziur naiz ez dela batere erraza izango. Baina EGI martxan da horri buelta emateko;

Badugu taldea, badugu formakuntza, prestutasuna, erantzunkizuna, konpromezua, indarra. Badugu iragana, oraina eta batez ere, badugu etorkizuna! Izan zirelako gara, eta garelakoizango dira.

Gurea defendatzeak egin gaitu handi! Euskara, askatasuna, gure ikurrak, gure nortasuna. Zuek erakutsi diguzue zer den alderdia, zer den gure lurraldea maitatzea eta zaintzea, askatasunez bizitzearen garrantzia. Opari ederra egin diguzue gazteoi, sentimendua.

Qué mayor regalo que el sentimiento jeltzale, el comprometido, ese que sabe que debemos defender lo nuestro, que eso es lo que nos seguirá haciendo crecer y mantener viva la ilusión y ayudar a recuperarla a aquellos que en estos momentos, un poco movidos, la puedan empezar a perder.

¿Pero cómo no vais a ilusionaros con esta juventud? Esta juventud está más que preparada para coger el testigo. Prest dago lekukoa hartzeko eta korrikaren hurrengo kilometroekin aurrera egiteko! Horrela mantentzen baita gazte 128 urte dituen alderdia, hori da sekretua, jendearen alderdia izanik, ser el partido de la gente, el secreto para mantener siempre joven a un partido con 128 años de historia.

Hau esanda eta berriro etxera begira, Nafarroa, harro sentitu, Euzko Alderdi Jeltzaleak gure lurradearen alde egiten duenarengatik, bere alderdikide konprometituengatik, guk ere egiten baitugu Nafarroa lurralde anitza, plurala, gure aberria.

Segi lanean gazte, segi gure sentimendua zabaltzen, gure alderdia maitatzen eta, batez ere, segi batzen gaituen egun hau ospatzen, guk egiten baitugu alderdia!

Gora Euzko gaztedi!!

Gora Euzko Alderdi Jeltzalea!!

ALDERDI
EGUNA ²⁰/₂₃

Irailak 24, igandea
Forondan



Batzen
gaituen
eguna.



Gora Euzkadi askatuta!